

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

Behin betiko onestea Udalaren 2019ko ekitaldirako aurrekontua

Udal honek, 2018ko abenduaren 21ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematea, eta ez da aurkeztu inolako erreklamaziorik edo oharrik erabaki horren aurka. Beraz, bat etorritik Arabako Lurralde Historikoko toki erakundearen aurrekontuei buruzko Foru Arauak (3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa) 15. artikuluan xedatutakoarekin, aurrekontu hori behin betiko onetsirik gelditu da. Hona hemen haren laburpena, kapituluka:

Gastuen egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA
I. Langileen gastuak	241.056,26
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	535.521,49
III. Finantza gastuak	1.600,00
IV. Transferentzia arruntak	401.422,64
VI. Inbertsio errealak	193.167,78
VII Kapital transferentziak	153.671,69
Gastuak, guztira	1.526.439,86

Diru sarreraren egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA
I. Zuzeneko zergak	697.996,33
II. Zeharkako zergak	68.000,00
III. Tasak eta bestelako sarrerak	191.430,46
IV. Transferentzia arruntak	486.696,46
V. Ondare bidezko diru sarrerak	18.991,02
VII. Kapital transferentziak	63.325,59
Diru sarrerak, guztira	1.526.439,86

Iragarki honekin batera erakunde honetako lanpostu zerrenda argitaratzen da 1. eranskinean, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 16. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik.

Udal honetako aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2019ko urtarilaren 23a

Alkatea

JAVIER URIARTE JAIRO

I. eranskina

I. KARRERAKO FUNTZIONARIOAK

— Lanpostuaren izena: Idazkari-kontuhartzailetza. Eskala: Gaikuntza Nazionala; azpieskala: idazkari-kontuhartzaileak. Administrazio egoera: aktiboan. Taldea: A1. Destino-osagarria: 26. Berariazko osagarria: 35.300,30 euro. Lanaldia: osoa. Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe.

— Lanpostuaren izena: Administraria. Eskala: Administrazio Orokorra. Azpieskala: administrariak. Administrazio egoera: aktiboan. Taldea: C1. Destino-osagarria: 16. Berariazko osagarria: 19.643,54 euro. Lanaldia: osoa. Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun datarik gabe.

— Lanpostuaren izena: administrari laguntzailea. Eskala: Administrazio Orokorra. Azpieskala: laguntzaileak. Administrazio egoera: aktiboan. Taldea: C2. Destino-osagarria: 15. Berariazko osagarria: 17.163,02 euro. Lanaldia: osoa. Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun datarik gabe.

— Lanpostuaren izena: udal aguazila. Eskala: Administrazio Berezia. Azpieskala: mendekoak. Administrazio egoera: aktiboan; taldea: profesionalen elkartea (lehengo E). Destino-osagarria: 14. Berariazko osagarria: 18.660,74 euro. Lanaldia: osoa. Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun datarik gabe. Destinoa: askotariko zerbitzuetarako behargina.

II. eranskina

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 75.5 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, udalbatzako kideek ehun euroko kalte ordaina izango dute bilkuretar, batzordeetara eta batzarretara joateagatik.